

# Kostuen egitura

Zein dira zuen proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?

Gure enpresa aurrera eramateko, ezinbestekoa izango zaigu gure enpresaren kostu diruak ezartzea.

## **Kostu finkoak:**

- Gure enpresa arrakasta handia izateko lehenik eta behin herrian ondo kokatuta eta ondo komunikatua dagoen lokal bat artzea erabaki dugu. Nahiz eta lokal hau beste tokitan baino garestiago eta txikiagoa izan, azkenean oso rentablea aterako zaigu. Kokapen idealari esker, herrian bertan dauden pertsona guztiek gure negozioa ikustea lortuko dugu, eta ez gure lokala herritik aldentuta jarriko bagenu. Ondorioz, diru kopuru handia bat jarriko genuke uste dugulako hau gure enpresaren arrakastaren oinarria dela. Hasiera batean lokala alokatuko dugu kapital faltarengatik, baino etekinak lortzen hasten garenean, eraikina erosten bukatuko dugu. Gutxi gora 40.000 euro gastatzeko prest gaude.
- Gure enpresaren arrakastaren beste oinarri bat tresneria eta teknologia izango da. Honi esker, beste enpresa handiekin lehiatzeko aukera izango dugu. Gure teknologia merkatuan dagoen eguneratua izango da, azkenean merkea garesti ateratzen delako. Gehien bat gure janaria lantzeko elektrodomestrikoetan inbertituko dugu gure dirua, baina baita gailu elektronikoetan (ordenagailuak). Arlo honetan 20.000 bat euro inguru erabiliko dugu.
- Negozioa aurrera eramateko, bankura joango gara epe luzeko mailegu bat eskatzeko. Badakigu ekintza hau oso arriskutsua dela, negozioa gaizki ateratzen bada zor askorekin gera gaitzkeelako. Baino argi daukagu gure negozio arraskasta izango duela eta lortutako etekinekin hamar urtetan maileguari aurre egiteko gai izango garela.

## **Kostu aldakorrak:**

- Lokalean erabiltzen dugun elektrizitatea eta ura.
- Langileen soldatak. Hasiera batean enpresaren sortzileak egongo gara enpresan lanean eta doainik. Enpresa aurrera doan heinean, langileak kontratatzen hasiko gara. Haien soldata nahiko ona izango da.

- Produktuak erostea.
- Noizean behin gure lokala promozionatzeko iragarki bat jarriko dugu herriko Txintzarri aldizkarian. Baita ere herrian zehar joango gara foiletoekin gure lokala promozionatzen.

Gure enpresa handiagoa egiten den heinean, beste lokal batzuk erosi eta martxan jartzeko gai izango gara, frankizia bat sortzen. Gure helburua ahalik eta herri gehienetara zabaltzea da. Badakigu horrek diru kantitate adierazgarri bat suposatuko duela, baina azkenean etekinak asko handituko dira ekintza honi esker.